

## BALIABIDE DIDAKTIKOEN BILDUMA

INGURUMEN JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZA KORONABIRUS GARAIAN  
#ETXEANGERATUKONAIZ

\*\*Euskaraz ikusgai

### IKUSTEKO

#### BIDEO LABURRAK

- **“[Aquatika](#)”** ikus-entzunezko ipuina (haur hezkuntza, 3-5 urte). Ipuina jarraitzeko material osagarria, [hemen](#). Txikienek itsaspeko mundua hobeto ezagutu eta nola zaindu ikasteko.
- **“[Lemon](#)”** laburmetraia (9 urtetik aurrera). Bideo honek gizakiek sortutako kutsadurak natura nola kaltetzen duen metaforikoki adierazten digu.
- Hondakin plastikoak itsasoan: [Mimook](#) eta [Ethic](#)-en bi bideo labur eta informatzaile.
- Greta Thunberg ekintzailearen klima aldaketaren kontrako [kanpainaren](#) bideo inspiratzaileetako bat.
- ¿Zer dira Garan Iraunkorreko Helburuak? (12-14 urte). [Bideoa](#). Iraupena: 1:44 min.
- **\*\*4. GIH, kalitatezko hezkuntzaren alde.** UNESCO Etxearen [bideoa](#) (2018), (12-14 urte). Iraupena: 2:22.
- Ineco [bideoa](#), 2019. Iraupena 2:34. (15-16 urte).
- **\*\*13. GIH, Klima babesteko ekintza.** UNESCO Etxearen [bideoa](#) (2018). (12-14 urte). Iraupena: 2:00 min.
- **\*\*Cebek Bizkaiaren [bideoa](#), 2018. Iraupena 1:23 min. (15-16 urte).**

- **\*\*14. GIH, Uretako bizitza.** UNESCO Etxearen [bideoa](#) (2018). (12-14 urte). Iraupena: 1:56 min.
- Plastiko gutxiago, Mediterraneo gehiago. Greenpeaceren [bideo](#) laburra. Iraupena: 0:57 min.
- **¿Zer da... 2030 Agenda?** Fundación Internacional y para Iberoamérica de Administración Y Políticas Públicas-ren [bideoa](#). (2019). Iraupena 3:45 min. (15-16 urte).
- **Nahi dugun mundua: 2030 Agenda beteta.** Entreculturaren [bideo](#) laburra.

## DOKUMENTALAK

- **[Una verdad incómoda](#).** Negutegi efektuaren ondorioetan oinarrituz, Al Gorek (Estatu Batuetako lehendakariorde oihak) munduaren egungo egoera adierazten du. Kutsadurarengatik kaltetuak izan diren planetako toki anitzen errealitatea ezagutzeko adibide zehatzak erakusten ditu. Gainera, ikuspegi zientifikoago bat eskaintzen duten zenbait adituen lekukotasunak agertzen dira ere. Iraupena: 90 minutu.
- **[Diversidad en peligro](#).** Espezie ezberdinen desagertzea, ekosistema ezberdinetan gizakiak izan duen eskuhartzearekin zuzenki lotuta dago. Hau da Espainian sortutako proiektu honen ardatz nagusia: berotze globalak eragin zuzena du urarengan, eta hortaz, itsasoko bizitzan, plastiko eta kimiko isuriteengatik kaltetua dagoena ere. Beste arrazoiak direla eta, animalia asko arriskuan daude ere, ehizagatik adibidez. 2018. Iraupena: 50 minutu.
- **[Antes que sea tarde](#).** Proiektu hau National Geographic-ek aurkezten du, Leonardo DiCaprio eta Martin Scorsese ekoiztua, eta munduko bazter ezberdinetan klima aldaketak dituen ondorioetan erdiratua. Dokumental osoan zehar kontinente guztiak eragiten dituen krisi hau konpontzearen hainbat ikuspuntu eta eztabaida aurkezten dira. Horretarako, zientzialari eta politikari adituen elkarlana izanik. Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat zuzendua. 2016. Iraupena: 95 minutu.
- **[Mañana](#).** Cyril Dion eta Mélanie Laurent, zinema munduarekin loturiko ekintzaileak, munduan zehar egiten ari diren bidaia kontakizun bihurtzen dute: klima aldaketari aurre egiteko ideia berritzaileak dituzten pertsonen bila daude. Iragaitzako Hiriak (Transition Towns) edo feminismo ekologista, klima aldaketarekin amaitzeko eta dokumentalean aurkeztutako Erresuma Batuan eta Indian sortutako mugimendu berrietako batzuk dira

hurrenez hurren. Beren helburu nagusia proiektu aurrerakoiak eta abangoardistak harrapatzea da, herritarrek, enpresek zein politikariek aurrera eramaten saiatzeko edo berriak bilatu ditzaten. 2015. Iraupena: 115 minutu.

- [Cómo cambiar el mundo](#). Greenpeace ekologista taldearen hastapenak erakusten ditu: 70. hamarkadan gazte ekintzaileak froga nuklearren kontra protesta egiteko bildu ziren. Bertan sortutako harreman eta loturak eragin zuen, egun ingurumenaren eta bere ekosistemen babesaren alde borrokatzen duen elkarterik handienatzat hartzea. Azken hamarkadetan elkarrekin izandako ekimen ezberdinak eta klima aldaketaren kontrako borroka sustatzeko asmoz izandako eragin errealak biltzen ditu. 2015. Iraupena: 110 minutu.

- [Nuestro planeta](#). 'Dokumental onena' eta 'Narratzaile onena' sariak jaso zituen 2019ko Emmy Sarietan. Produkzio hau 50 minutuko 8 kapitulutan banatzen da, eta gizakiak animalietan, habitat ezberdinetan eta Lurrean duen eraginari buruz diardu. Klima aldaketaren arriskuak 4 urtetan zehar filmatutako proiektu honen bidez azaltzen dira. Mundu osoko 50 lurraldeetara eraman da, naturaren garrantzia eta bere beharrezko babesa jorrazteko. 2019. Iraupena: 50 minutuko 8 kapitulu.

- [La huella ecológica del hombre](#). Film honetan, gizakiak eragindako ingurumen kalteak erakusten ditu National Geographic-ek. Hala, beren bizitzan zehar eta hirietan bereziki, gizakiek baliabideak gehiegikeriaz erabiltzen dituztela adierazten du. Kontsumo irrazional hau eta sortzen dituzten hondakinen ondorioak, "gizakiaren aztarna ekologikoa" bezala izendatzen dira. 2007. Iraupena: 47 minutu.

- [En busca del coral](#). Karbono isurketek ozeanoak nola berotzen dituzten eta 'koralaren zuritzea' sorrarazten duten adierazten du; mundu osoan zehar azkartzen ari den animali kolonialaren heriotz masiboa. Gertakari honen ondorioak zenbaitzina dira, hondamendi ekologikotzat hartu daitekeelarik. 2017. Iraupena: 90 minutu.

- [Un océano de plástico](#). Hondakin plastikoek ozeanoen ongizatea eta bertan bizi den fauna, larriki kaltetzen dituela adierazten du. Material kaltegarri honen eragina, Tanya Streeter buzero askeko mundu mailako txapeldunak egindako urpeko grabazioei esker ikus daiteke. Kontsumitzaile bezala, gizakiak arazo hau eteteko duen garrantzizko rola adierazteko asmoz, dokumentalak hondakin kaltegarri honengatik kaltetuak izan diren hogei leku baino gehiago erakusten ditu. 2016. Iraupena: 90 minutu.

- [El agua](#). 2001. urtean egindako dokumental honek, urak berarekin duen guztiari buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzen du. Gizartearen ingurumen heziketara zuzendua dago, bereziki gazteentzat, eta uraren zein ur-baliabideen kudeaketan egun dauden arazo guztien ikuspegi kontzeptual bat ematen saiatzen da. Iraupena: 27 minutu.

- [Tierra. La película de nuestro planeta](#) . 2007. urteko dokumentala, BBCko bi dokumentalista beteranoengatik zuzendua. Filmaketa 5 urtez luzatu zen, 26 lurralde ezberdineko 200 kokapen baino gehiagorekin, eta 250 eguneko aire-argazkigintzarekin. Animalia-erreinuaren edertasuna bere osotasunean erakustea lortzen duen lan itzela, bere desagertzeko arrisku etengabe eta kezkarriaz ohartarazten gaituen bitartean. Iraupena: 1h 38 min.
- [Océanos](#). 2009.urteko dokumental frantsesa: itsasoa 10 korapilotara zeharkatu hegaluzeak arrantzatuz, izurdeak beren jauzi sinetsgaitzetan lagundu, sorbalda hegala parean marrazo zuriarekin igeri egin... haien artean arrain izatea bezala da. Jacques Perrin eta Jacques Cluzaudek, filmatze teknika berriei esker, ozeanoen korapilatsuenera eramaten gaituzte, bertan itsas-izaki baztertuak eta ezezagunak deskubritzeko. *Océanosek* bere buruari bizitza basatian gizakiak duen inprontari buruz galdetzen dio, irudi hunkigarrien bidez honako galderari erantzunez: "Ozeanoa, zer da Ozeanoa?". Iraupena: 1h 39 min.
- [Age of Stupid](#). Giza jarduerak berotze globalean izandako ondorioak jorratzen ditu. 2055. urtean girotua, benetako dokumentalen filmaketak erakusten ditu, humorez batzuetan. Etorkizuneko artxibozain baten istorioa kontatzen du, itsas barreneko dorre batean gizadiaren hondarrak gordetzen dituen. Egun batean, artxibategian 2008tik zeuden bideo zaharrak ikusten hasten da, oraindik hondamendiari eta gizartearen kolapsoari buelta emateko aukera zegoenean, gizadiak zergatik ez zuen ezer egin klima aldaketaren eraginak eteteko ulertzeko asmoz. Bere estreinaldiaren ia 11 urte ondoren, oraindik ez dugu beharrezko energiarekin jokatu geroz eta saihetsezinagoa dirudiena ekiditeko. Iraupena: 1h 28 min.
- [Plastic Planet](#) . Ozeanoen azalean dagoen zaborraren %90etik gertu, plastikoa da. Urtero 8 milioi tona plastiko botatzen dira ozeanoetara, beste hitzetan, minuturo zabor-kamioi bat ozeanoan hustea bezala. NBEak larrialdi hau aitortu baino 8 urte lehenago, dokumental honek gure bizitzan gainezka dagoen material honen -plastikoa- ekoizpenaren eta kontsumo masiboaren ondorioak jorratu zituen. Zer ondorio ditu gure egunerokotasunean, gure osasunean, eta ingurumenaren osasunean. Plastikoa janzten dugun arropan dago, jaten dugun janarian (edukiontzietatik). Zuzendaria, hamar urtez aritu zen petroliotik eratorritako material honek planeta nola suntsitzen ari duen ikertzen, zientzialariei egindako elkarrizketen argudio zehatzen bidez.
- [Waste land](#). Vik Muniz artista brasildarraren lanari buruzko dokumentala, Jardim Gramacho instalazio batean erdiratua, munduko zabortegi handienetarikoa bat, Rio de Janeiro hirian kokatua. Zuzendaria, Lucy Walker, eta ekoiztu duten bi zuzendari brasildarrak, João Jardim eta Karen Harley, ikusleari zabortegiaz bizi diren pertsonen egunerokotasuna erakutsi nahi diote. Vik Muniz artista brasildarra zabortegira doa, 'biltzaile' guzti horiek margotu eta artelan bezala erakusteko asmoz. Bat baino gehiago deseroso

sentiarazi dezakeen dokumental bat, bere errealitatearen gogortasun hutsagatik. 2011an Dokumental onena sarirako hautatua izan zen, "Inside Job"ek Dokumental onenerako estatuatxoa irabazi zuen urte berean.

- [No impact man.](#) "Planeta salbatzen saiatzen den liberal errudun baten abenturak, eta prozesuan bere buruari eta gure bizimoduari buruz deskubritzen duena" Colin Beavan newyorktarra, bere emaztea Michelle Conlin eta bere alaba Isabella jarraitzen dituen dokumentala da. Familiak beren New Yorkeko Bostgarren Etorbideko luxuzko bizi estiloa alde batera uztea erabakitzen dute, erregai fosilik gabe bizitzen saiatzeko, eta horrela, beren eragina ingurumenean murriztu eta etorkizun jasangarri bat ziurtatzen saiatu. Gainera, Colin Beavanek bizipen honen inguruko liburu bat idatzi zuen "No Impact Man: The Adventures of a Guilty Liberal Who Attempts to Save the Planet and the Discoveries He Makes About Himself and Our Way of Life in the Process" izenpetua.

- [Gasland.](#) 2006an, Josh Fox zuzendariak energia-enpresa baten gutun bat jaso zuen, zinetan 100.000 dolar eskeintzen zizkioten gas naturalaren bila, bere lursaila zulatzearen ordainetan. Urte bat lehenago, Estatu Batuetako kongresuak petrolio korporazioak ingurumen-arauetatik salbuesten zituen lege bat onartu zuen. Beraz, Josh Foxek bere lursailan gas naturalaren bilaketak zer eragin izango zuen jakin nahi izan zuen. Bere kamara eskuan, lurralde osoan zehar bidaiatzeari ekin zion, haustura hidraulikoa (fracking) deitzen dutenaren egi guztia eta nola lurralde osoko herriak kaltetu dituen ezagutzeko. Waste Land bezala, 2011ko Oscarretan hautatua izan zen. Iraupena: 1h 43 min.

- [Comprar, tirar, comprar.](#) Cosima Dannoritze zuzendari alemanak zergatik erosten ditugun produktuek geroz eta gutxiago irauten duten azaltzen duen istorio adierazgarri hau zuzentzen du. Kontsumoa areagotzeko, objektuen zaharkitzearen programazioa zehazki azaltzen du. Ba al dago betiereko bonbilarik? Nola erabili daiteke txip bat erabilera kopuru batetara iritsi den produktu bat 'hiltzeko'? Galdera hauei eta beste askori Katalunian, Frantzian, Alemanian, AEBtan eta Ghanan -Mendebaldeko zabor-elektronikoaren zabortegei bilakatu den lurralde afrikarra- filmatutako erreportaiari erantzuna ematen zaie. Iraupena: 52 minutu.

- [Transgénicos. El mundo según Monsanto.](#) Dokumentalak laborantza transgenikoen hazkunde esponentzialak eragindako arriskuak adierazten ditu. 2007an 100 milioi hektarea laborantza hauekin landatuak zeuden, %90ean Monsantoaren patentea zuten ezaugarri genetikoeekin. Zuzendaria hiru urtez aritu zen lanean lau kontinentetan zehar, zergatik Monsanto gobernu eta teknologiarentzat korporazio-influentzia gaiztoaren eredu bihurtu den azaleratzeko. Dokumentu sekretuak biktimen kontakizunekin, zientzialariak eta politika diseinatzaileak nahasten ditu, eta hainbat txosten engainagarriak, presio taktikak, ustelkeri saiakerak eta genetikoki eraldatutako (GE) jaki arriskutsuak gure dietaren parte izatea baimentzeko gobernu ezberdinei konpainiak egindako iruzurrak aurkezten dizkigu.

- [Baraka](#). Pelikula txalotu honek, modu bisual eta musikal hutsean, gizakiak natura eta ingurumenarekin ezarri duen harreman konplexua kontatzen du. Iraupena: 1h 38 min.
- [Home](#). Aro erabakigarri bat bizitzen ari gara. Zientzialariek gure bizimoduak aldatzeko, baliabide naturalen agortzea ekiditeko eta Lurreko klima hondatzea sahiesteko, soilik 10 urte ditugula esaten digute. Gutariko bakoitzak ahalegin kolektibo honetan parte hartu behar du. Iraupena: 1h 33 min.
- [Think global, act rural](#). Dokumental alternatiboa bere ekoizpen eta mezuan. Pelikula honek, egungo elikagai-ekoizpen sistema zalantzan jarriz eta aldaketarako alternatibak proposatuz, kontsumitzen duenaren inguruan, begirada ezberdin bat eskeintzen dio ikusleari. Bere zuzendariak, Coline Serre-ak, kamara eskuan, dokumentaleko protagonistak filmatu zituen. Brasilen, Indian eta Frantzia abeltzain, nekazari eta ekonomistek aurrera eramaten dituzten irtenbide anitzak eskaintzen ditu.

Eta askoz gehiago: Netflixeko **hamar dokumental** klima aldaketari buruz hausnartzeko ([Ethic](#)).

## IRAKURTZEKO

- [Día Mundial de los Océanos](#) 2019: género, plásticos y ODS artikulua.
- Chisnall, R., Murray, K., Volain, N., Church, E., Timmers, K., Williams, J. Ziegenfuss, R. (n.d.). [El libro de los ODS \(Objetivos de Desarrollo Sostenible\)](#)
- GreenPeace México (2019). [Enfermedades causadas por el cambio climático. ¿Sabes cuáles son?](#)
- Ministerio de agricultura, alimentación y medioambiente y Centro de estudios y experimentación de obras públicas. [Estudio sobre cuantificación de microplásticos e identificación de posibles medidas para su reducción en la fuente.](#)
- Nazio Batuak (2015). [Memoria del Secretario General sobre la labor de la Organización](#)
- Sánchez de Madariaga, I., García López, J., Sisto, R. (2018). *MIRANDO HACIA EL FUTURO: CIUDADES SOSTENIBLES. [Los Objetivos de Desarrollo Sostenible en 100 ciudades españolas.](#)*
- [Mediterráneo, un mar de plásticos](#). Greenpeace-n artikulua.

## EKITEKO

- **\*\*Ezagutu zure [arrasto ekologikoa](#).**
- Gure egunerokotasunean, [hondakin plastikoak murrizteko](#) ekintzak.
- Birziklatuz lortu daitekeenaren Ecoembesen [baliokidetasun eta datu](#) taula.
- Nola egin hiri-baratze bat: [Jardinius](#) eta [Elangreen](#)-en ideia batzuk.
- Ingurumenerako Nazio Batuen Programaren [#MaresLimpios](#) kanpainan parte hartu, zeinak 2022rako ozeanoko gai plastikoak desagertzea du helburu.